



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko azaroaren 15a

35. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—10-23/LEY-00009. Foru Legea, kreditu berezi bat ematekoa, ordain dakien alderdi eta formazio politikoei 2023ko maiatzaren 28an egin ziren Nafarroako Foru Parlamenturako hauteskundeetako gastuak finantzatzeko dirulaguntza, eta zenbait aurrekontu-partidaren izenak aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-23/MOC-00066. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehenetsunez eta al bait azkarren izapidetu dezan gure herrialdean modu ilegalean sartzen diren etorkin guztien berehalako kanporatzea. Mozioa erretiratzea (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-23/PES-00096. Galdera, nafarrak beste erkidego batzuetara laguntza-anbulantziatan eramateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

—11-23/PES-00097. Galdera, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren S4 Estrategiako eskualde-diagnostikoan jasotzen den “jakintzako zerbitzu trinkoetako enplegua” adierazleari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—11-23/PES-00098. Galdera, biomasak Nafarroaren eraldaketa energetikoan duen eginkizunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—11-23/PES-00111. Galdera, Tarazonako eta inguruko herrietako uraren kutsadurak eragindako osasun publikoko krisiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-23/ELC-00002. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) bi patronatukide izendatzea (14. or.).

- 11-23/ELC-00004. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gardentasunaren Kontseilurako izendatu beharreko lau kideak izendatzea (14. or.).
- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-23/LEY-00009. Foru Legea, kreditu berezi bat ematekoa, ordain dakien alderdi eta formazio politikoei 2023ko maiatzaren 28an egin ziren Nafarroako Foru Parlamenturako hauteskundeetako gastuak finantzatzeko dirulaguntza, eta zenbait aurrekontu-partidaren izenak aldatzekoa

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko azaroaren 9an egindako Osoko Bilkuran, honako Foru Lege hau onetsi zuen: Foru Legea, kreditu berezi bat ematekoa, ordain dakien alderdi eta formazio politikoei 2023ko maiatzaren 28an egin ziren Nafarroako Foru Parlamenturako hauteskundeetako gastuak finantzatzeko dirulaguntza, eta zenbait aurrekontu-partidaren izenak aldatzekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, kreditu berezi bat ematekoa, ordain dakien alderdi eta formazio politikoei 2023ko maiatzaren 28an egin ziren Nafarroako Foru Parlamenturako hauteskundeetako gastuak finantzatzeko dirulaguntza, eta zenbait aurrekontu-partidaren izenak aldatzekoa

ATARIKOA

Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeak 44. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak dirulaguntzak emanen dizkie alderdi politiko, federazio, koalizio eta hautesle batasunei, hauteskundeetako gastuak finantzatzeko.

Foru lege beraren 48. artikulua xedatzen du Nafarroako Gobernuak, Kontuen Ganberak hauteskundeetako kontabilitateen erregulartasunari

buruzko txostena igorri eta ondoko hilabetean, foru lege proiektu bat aurkeztuko diola Nafarroako Parlamentuari, esleitu beharreko dirulaguntzen zenbatekoa adinako kreditu berezi bat emateko; dirulaguntza horiek Parlamentuak proiektua onetsi eta ondoko hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko dira.

Foru lege honen xedea da indarreko hauteskunde araudian ezarritako agindua betetzea, 2023ko maiatzaren 28an Nafarroako Parlamenturako egindako hauteskundeek sortutako gastuak finantzatzen laguntzearen.

Halaber, Nafarroako 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legeko zenbait partidaren izenak aldatu dira, haien betetze zuzenari egokitze aldera.

1. artikulua. Kreditu berezi bat ematea.

1.594.526 euroko kreditu berezi bat ematen da 2023ko Gastuen Aurrekontuko "Alderdi politikoen-tzako dirulaguntzak" izeneko 010001-01000-4819-912100 partidaren kontura.

2. artikulua. Kreditu bereziaren finantzaketa.

Kreditu berezi hori, 1.594.526 eurokoa, "Kontu korronteen eta eperako ezarpenen interesak" izeneko 110003-11500-5200-000000 partidaren izandako diru-sarrera handiagoen kontura finantzatzeko da.

3. artikulua. Aurrekontuko partiden izena aldatzea:

1- "920005 93100 7609 231B05 Antsoaingo Udalarekiko hitzarmena. Berrikuntzak eguneko zentro komunitariorako" dioenean, honakoa behar du:

920005 93100 7609 231B05 Antsoingo Udalarekiko hitzarmena. Berrikuntzak eta ekipamendua eguneko zentro komunitariorako”.

2- “210001 21300 7609 2616F2 (E) Transferentzia Pitillasko Udalari: udal-igerilekuak estaltzea” dioenean, honakoa behar du:

“210001 21300 7609 2616F2 (E) “Transferentzia Pitillasko Udalari: udal-igerilekuetako pergola”

3.- “210001-21300-7609-261697: (E) Lizarrako Curtidores eta Ordoiz kaleak eguzki-argiekin argitzea” dioenean, honakoa behar du: “210001-21300-7609-261697: Lizarrako Ordoiz bidea kalea eguzki-argiekin argitzea”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**11-23/MOC-00066. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita lehentasunez eta albait azkarren izapidetu dezan gure
herrialdean modu ilegalean sartzen diren etorkin guztien berehalako
kanporatzea**

MOZIOA ERRETIRATZEA

2023ko azaroaren 13an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteko María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da lehentasunez eta albait azkarren izapidetu dezan gure herrialdean modu ilegalean sartzen diren etorkin guztien berehalako kanporatzea. Mozioa 2023ko azaroaren 14ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-23/PES-00096. Galdera, nafarrak beste erkidego batzuetara laguntza-anbulantzietan eramateari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, nafarrak beste erkidego batzuetara laguntza-anbulantzietan eramateari buruzkoa. Galdera 2023ko irailaren 29ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak idatziz erantzuteko galdera egin du pazienteak anbulantziak eramateari buruz (11-23/PES-00096), jakin nahi baitu "Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren 9/2023 jarraibidean oinarrituta, zer dela-eta baimentzen den nafar bat beste erkidego batera eramatea laguntza-anbulantzia batean baina ez den baimentzen Nafarroatik kanpo ospitaleratu behar izan den nafar bat gure erkidegora itzultzea laguntza-anbulantzia batean". Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

1.- Irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak Osasun Sistema Nazionalerako zerbitzu komunen zorroa eta hura eguneratzeko prozedura ezartzen ditu, eta VIII. eranskinean jasotzen du osasun garraioko zerbitzuen oinarritzko zorroa, desgaitasuna duten pertsonentzat irisgarria. Eriak lekualdatzean datza, soil-soilik arrazoi klinikoengatik, beren egoerak ohiko garraiobideak erabiltzea galarazten dienean. Gainera, dekretuan hau azaltzen da:

a) Osasun garraioko prestazioa eskuratzea: Prestazio honen finantzaketarako eskubidea dute

eriek edo istripua izan duten pertsonak, Osasun Sistema Nazionalean osasun laguntza jasotzen dutenean, zentro propioetan edo itunduetan, baldin eta, ezintasun fisikoengatik edo beste arrazoi batzuegatik –soil-soilik arrazoi klinikoak– ezin badute ohiko garraiobide bat erabili osasun zentrorra joateko, edo osasun laguntza jaso ondoren etxera itzultzeko, beharra justifikatzen duten arrazoiak irauten dutenean.

b) Edukia: Barnean hartzen ditu lagundu gabeko osasun garraioa, eriak edo istripua izan duenak ez badu laguntza tekniko-sanitarioaren beharrik bidean, eta osasun garraio lagundua, bidean laguntza tekniko-sanitarioaren beharra duten eri edo istripudunentzat.

c) Betekizun orokorrak:

c).1.- Osasun garraioa lehorrekoa, airekoa edo itsasokoa izan daiteke. Garraiobide aproposenean gauzatuko da, beharrenean eta egokitasunaren arabera, ahalik eta denbora laburrenean eta lekualdaketa ongi egiteko ibilbide egokiena aukeratuta.

c).2.- Errepideko osasun garraioko ibilgailuek apirilaren 17ko 619/1998 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak bete behar dituzte (dekretu horrek haien ezaugarri teknikoak, osasun ekipamendua eta langile hornidura ezartzen ditu), bai eta ibilgailu bakoitzaren jarduketaren oinarria dagoen autonomia erkidegoko araudia ere.

c).3.- Pazientearen lekualdaketa eragiten duen asistentziaren ardura duen fakultatiboak eskatuko du laguntzarik gabeko edo lagundutako osasun garraioa, autonomia erkidegoko araudia betez, arrazoi kliniko hutsak kontuan hartuz eta, betiere, garraio horrek eria osasunaren kontrako arrisku erantsirik ez dakarrenean.

d) Pazienteak autonomia erkidego batetik bestera eramatea:

d).1.- Autonomia erkidego batek erabakitzen duenean paziente bat beste erkidego batera eramatea osasun laguntza emateko, berak ezin diolako eman bere bitartekoekin, osasun garraioa eskainiko die horren beharra duten pazienteei, bai osasun zentrora joateko, baita etxera itzultzeko ere, prestazio horren beharra justifikatzen duten arrazoiek irauten badute. Aireko edo itsasoko garraioa erabiliz gero, erkidego hartzailea arduratu da pazientea aireportu, heliportu edo portutik osasun zentrora eramateaz, bai eta aireportu, heliportu edo portura itzultzeaz ere, osasun garraioaren beharraren arrazoiek irauten dutenean.

d).2.- Aldiroko tratamendua, esaterako dialisia edo errehabilitazioa, jasotzen ari den paziente bat beste autonomia erkidego batera lekualdatzen bada aldi baterako, erkidego horrek emango dio garraio prestazioa tratamendua jasotzen jarraitu ahal dezan, betiere arrazoi mediko hutsengatik. Bere eremuan osasun garraioa baimentzeko erabiltzen dituen irizpideak aplikatuko ditu.

d).3.- Beste autonomia erkidego batera aldi baterako lekualdatu den paziente batek bertan larrialdiko osasun laguntza jasoz gero, pazientearen jatorrizko erkidegoaren kargura izango da osasun garraioa hura jatorrizko erkidegora ekartzeko, dela bere etxera dela beste osasun zentro batera, betiere arrazoi mediko hutsengatik.

2.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen 9/2023 Jarraibidea, anbulantziatzeko osasun garraioa probintzia arteko lekualdatzeetarako erabiltzeari buruzkoa. Jarraibide hori eman da, zioen azalpenaren arabera, asko ugaritu direlako probintzia arteko lekualdatzeetarako osasun garraioaren eskaerak beste garraio bide batzuk erabiltzen ahal dituzten pazienteen aldetik, nahiz eta zerbitzu hori eskatzeko erabakia arrazoi kliniko hutsetan oinarritu behar den, eta ez arrazoi sozial, familiar edo ekonomikoetan. Zerbitzu horren erabilera bidegabeak gainkarga ezartzen dio garraio programatuaren sareari.

Jarraibide horretan azaltzen da, besteak beste, zer arrazoik justifikatu behar duten probintzia arteko lekualdaketa, paziente mota edozein dela ere (lekualdatua edo O-NOZek beste erkidego bateko osasun zentro batera deribatua) eta zer desber-

dintasun dauden lekualdatze moten artean paziente motaren arabera.

Lekualdatutako pazienteak: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen onuradun izanda Nafarroatik kanpo ospitaleratuta dauden pazienteak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak berak bertara bideratu gabe.

Nafarroatik kanpoko ospitaleratze bat, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatibo batek berariaz agindu ez badu, larrialdiko osasun laguntzat jo behar da. Beraz, larrialdia amaitutakoan pazientea Nafarroako ospitale batera lekualdatu liteke laguntzarik gabeko anbulantzian, betiere inplikaturako ospitaleen arteko adostasunez; anbulantzia mota hori erabiltzeak berretsi egiten du pazientea klinikoki egonkor dagoela eta lekualdatzeak ez duela arriskuan jarriko haren osasuna.

O-NOZek beste autonomia erkidego bateko zentro batera bideratutako pazienteak: probintzia arteko lekualdaketa ospitale batetik beste batera izan daiteke, edo ospitale batetik pazientearen etxera. Horrelako kasuetan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboak medikoki erabakitzen du egokiagoa dela pazientearen patologia Nafarroatik kanpo tratatzea (ez du zertan larrialdia izan). Horrelakoetan, baldin eta, pazientearen uneko egoera dela-eta, hura anbulantziaz lekualdatu beharra badago, medikuak erabakiko du anbulantzia mota, lagundua (bizi-euskarri oinarrikoa edo aurreratua) edo laguntzarik gabekoa, asistentzia mediko egokiena bermatzeko.

Aurreko guztia dela-eta, ondorio gisa, Osasun Sistema Nazionalaren helburu nagusietako bat kalitatezko osasun laguntza ematea izanik, pazienteari laguntza emanen zaio bere erkidegoan edo handik kanpo (duen patologiagatik edo, lekualdatuen kasuan, larrialdiagatik), eta pazientea eramateko anbulantzia erabili beharra badago, egoera bakoitzerako baliabide egokiena jarriko da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko urriaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-23/PES-00097. Galdera, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren S4 Estrategiako eskualde-diagnostikoan jasotzen den “jakintzako zerbitzu trinkoetako enplegua” adierazleari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Garrido Sola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren S4 Estrategiako eskualde-diagnostikoan jasotzen den “jakintzako zerbitzu trinkoetako enplegua” adierazleari buruzkoa. Galdera 2023ko irailaren 29ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urriaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo Navarra-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Espezializazio Adimentsuaren S4 Estrategiaren eskualde-diagnostikoko jakintzako zerbitzu trinkoen enplegu-adierazleari buruz (1123/PES-0097). Hona Nafarroako Gobernuako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak ematen duen informazioa:

1.- Zuen ustez, adierazle horren emaitza zergatik da hain eskasa konparaziozko analisirako erabili diren eskualdeen aldean?

Nafarroako enpresa egituran industria da nagusia, eta jakintzako zerbitzu trinkoek ez dute hain garrantzi handia. Hain zuzen, deitura horren sartzen diren sektoreak estu lotuta egon ohi dira beste lurralde mota batzuei, batez ere Europako hiri eta hiriburu handiak dauden eskualdeei, horietan kokatzen direlako gobernu nazionalen eskariak, enpresa handi eta multinazionalen egoitza nagusiak eta finantzagune garrantzitsuak. Jakintzako zerbitzu trinkoak barnean hartzen dituzte banku eta aseguruaren sektorea, lege aholkularitza, kontsultoretza, ingeniariaritza eta informazioaren teknologiak, besteak beste.

Eremu zabal horren barnean, Nafarroak badu ingeniariaren eta zerbitzu espezializatuen sektore indartsua, bereziki industriaren garapenerako laguntzako enpresak biltzen dituena, hala nola mantentze industrialeko eta digitalizazioko zerbituetan dihardutenak. Sektore horrek dituen ahal-

men espezializatu batzuk ez dira ageri adierazle- an, jakintzako zerbitzu guztiak agregatuta daudelako.

2.- Zuen ustez, jakintzako zerbitzu trinkoek zer eginkizun dute Nafarroako ekonomiaren modernizazioan?

Jakintzaren ekonomiarantz goaz, non teknologia eta jakintza aurreratuak txertatzea gero eta funtsezkoagoa izanen baita enpresen lehiakortasunerako.

Ekonomiaren modernizazioa zentzu zabalean ulertuta, modu asko daude enpresa eta erakunde- ei jakintzako zerbitzu trinkoak emateko, eta horien artean nabarmendu daiteke aholkularitza enpresa pribatuen egitekoa (orain ATANAn elkartuta daude IKT enpresekin batera) eta sektoreko nahiz lurraldeko gainerako kluster eta enpresa-elkartee- na, enpresa bazkideen artean jakintza eta teknologia transmititzeko bideak baitira.

Gobernuak, gainera, berariazko deialdiak egi- ten ditu instalazioak modernizatzeko (inbertsiorako laguntzak) eta jakintza estrategikoaren beste alderdi batzuk modernizatzeko (lehiakortasunerako laguntzak). Horiei gehitu behar zaizkie teknologiaren transferentziarako politikak (I+G+b laguntzen katalogoa), berrikuntza irekia, talentu ikertzailea ekartzeko laguntza eta abarrekoak. Politika horiei esker Nafarroak maila bat gora egin du Regional Innovation Scoreboard-en, Berritzaile Moderatua mailatik Berritzaile Sendoa mailara.

Industriari laguntzeko zerbitzu osagarri- egi dagoien atalean, jakintzako zerbitzu trinkoak funtsezkoak dira digitalizatorako eta produktibitatea hobetzeko (4.0 teknologiak ezarriz), bai eta industriaren jasangarritasunerako ere, prozesuen traza- bilitatea eta datuen kudeaketa beharrezkoak baitira efizientzia, kontsumoak eta ekonomia zirkularraren alderdiak hobetzeko. Nafarroak badi- tu eraldaketa digitalerako bi bulego eta Berrikun- tza Digitaleko Poloa; bertan elkartzen eta eskain- tzen dira Nafarroako enpresen hainbat zerbitzu, digitalizazioa eta 4.0 teknologiaren ezarpena helbu- ru dutenak.

3.- Departamentuak zer neurri ezarri du eta ezarri nahi ditu Nafarroaren lehiakortasunean determinante den adierazle horri dagokionez?

Berrikuntza Digitaleko Poloa, inbertsiorako laguntzak, lehiakortasunerako laguntzak, aliantza digitalen laguntzak, ATANA IKT klusterrarentzako babesa, aholkularitza, adimen artifizialeko konponbideen enpresa-garapena babesteko ekimena ATANArekin eta NAIR centre-rekin, klusterren politika...

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko urriaren 6an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-23/PES-00098. Galdera, biomasak Nafarroaren eraldaketa energetikoan duen eginkizunari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Garrido Sola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, biomasak Nafarroaren eraldaketa energetikoan duen eginkizunari buruzkoa. Galdera 2023ko irailaren 29ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urriaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, biomasak Nafarroaren eraldaketa energetikoan izanen duen eginkizunari buruz (11-23/PES0098). Hona Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak ematen duen informazioa: - Zuen ustez, biomasak zer eginkizun izanen du Nafarroaren eraldaketa energetikoan?

2.- Departamentuaren ustez, etorkizunean zeintzuk izanen dira Nafarroan biomasa-iturri nagusiak?

3.- Departamentuak zer neurri ezarri du eta ezarri nahi ditu Nafarroan biomasaren produkzioa bultzatzeko?

Galdera horiei erantzunez, Trantsizio Energetikoaren Zerbitzuak honako hau adierazi du:

Nafarroako Energia Planaren eguneraketan biomasa da ardatz estrategiko nagusietako bat,

eta helburu espezifiko hauek ezarri dira ardatz horretan:

Nafarroako baso-biomasaren aprobetxamendu energetikoa handitu eta hobetzea, karbono aztar-na murrizteko. Azken kontsumoa % 25 handitu behar da 2030erako.

Erabilitako biomasa trazabilitatea duten iturri berriztagarrietatik datorrela bermatzea, adibidez egurretarako landaketetatik edo jatorrizko basoetatik, modu seguru eta jasangarrian kudeatuta (zaintza katea).

Hobetutako teknologien berri zabaltzea, biomasaren bulego bat sortuta.

Babestu eta sustatzea teknologia modernoak, askotariko biomasa iturriak erabiltzen dituztenak – hala nola nekazaritza-industriako, landako eta hiriko hondakinak– kalitate handiko erregaiak, gasak eta argindarra ekoizteko.

Nafarroako Foru Administrazioaren eraikinetan biomasa instalazioak aplikatu eta txertatzea.

Biomasazko bero sorkuntzako instalazio zentralizatuak sustatzea, hainbat energia komunitate elkartzen dituztenak.

Nafarroako 2017-2027 aldirako Hondakinen Planeko Prebentzio Programari eta Kudeaketa Planari jarraituz lan egitea.

Nafarroako biomasa iturri nagusiei dagokienez, iturri hauek aurreikusten dira:

Nafarroako baso baliabidea.

Foru Komunitatearen eremu osoaren % 65 inguru baso lurrak dira, eta horietatik 450.000 hektarea inguru zuhaitziak dira. Zuhaitzi horien % 80 baso autoktonoak dira.

Hondar-biomasa
 Basogintza eta nekazaritzako hondakinak.
 Hondakinak eta biogasa
 Labore energetikoen biomasa – Bioerregaiak
 Caparrosoko biodiesel (OLEOFAT)
 Los Arcosko instalazioa (Solartia)
 Zangozako biomasa instalazioa
 Neurriak:
 Industria eta enpresa mailan, inbertsioak egin dira basoko lehengaiak landu eta galdaretan

erabiltzeko, adibidez ezpala, pelleta edo egurra lortzeko.

Biomasaren Balorizazio Energetikorako Espainiako Elkarte (AVEBIOM) bioenergiaren garapenean dihardu, biomasaren balio-kate osoa barnean hartuta. Elkarte horrek 2022an eguneratu egin du bioerregaien mapa, eta bioerregaien artean ageri dira ezpela, pelleta, egurra eta Nafarroan hutsaren hurrengoak diren beste hondakin batzuk, guztiak ere biomasa ziurtatu gisa.

Nafarroan enpresa hauek daude:

ENPRESA	PRODUKTUA	KOKALEKUA
Echeveste Hermanos	Pelleta	Lesaka
Ecofuego	Pelleta	Muru Artederreta
NaparPellet	Pelleta-Ezpala	Etxarri Aranatz
Gesbrick	Pelleta	Etxarri Aranatz
Harimasa	Briketa	Ihabar Arakil

Nafarroako Gobernua Biomasa Bildu, Eraldatu eta Hornitzeko Agoizko Zentroa sustatzen ari da, eta aurreikusten da hornidura hasten denean urtean 900 tona banatzea alokairu sozialeko etxebizitza babestuen eraikinetara eta eraikin publikoetara.

Halaber, biomasa bulego berri bat sortu da Agoitzen, eta departamentuak enpresen eskura jarri du, haien deskarbonizazio prozesuetan

laguntzeko. Bulego horren bitartez, enpresetara bisitak egingo dira energia iturri berriztagarri horren onuren berri emateko.

Gainera, webgune bat sortu da enpresek bertan kalkulatu ahal izan dezaten zenbat energia aurreztuko duten biomasa instalatzen badute.

Etorkizunerako planifikatutako jarduketetako batzuk dagoeneko garatzen ari dira. Honako hauek nabarmentzen dira:

Planifikatutako jarduketa / Inplikaturako eragileak
Kenkari fiskal berriak energia berriztagarrien instalazioetan inbertsioak egiteagatik / Industria Z.N.
Toki entitate eta irabazi-asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzak, biomasa erregai gisa erabiltzen duten instalazio termikoetan inbertsioak egiteko / Industria Z.N.
Hirietako bero sareak energia-efizientziaren irizpideei jarraituz berritzeko laguntzak / Industria Z.N.
Hezkuntza Departamentuaren eraikinetan biomasa galdarak instalatzea / Hezkuntza Dptu.
Osasun Departamentuaren eraikinetan biomasa galdarak instalatzea / Osasun Dptu.
Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuaren eraikinetan biomasa galdarak instalatzea / Kultura, Kirol eta Gazteria Dptu.
Ondarearen egoitzetan biomasa galdarak instalatzea / Ondare Dptu.
Biomasaz elikatutako mikrosareen proiektua proposatzea / Energia banatzeko udal sarea duten udalerrak + Industria Z.N.
Baso-biomasari buruzko zabalkunde kanpaina / Industria Z.N.
Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko 13/1990 Foru Legea eta Biomasa Sustatzeari buruzko Nafarroako Gobernuaren Erabakia betetzeko konpromisoa / Nafarroako Gobernua
Sustapen publikoetarako araudia sortzea. Barrutiko berokuntza instalazioak / Nafarroako Gobernua
Baso plangintza sustatzea / Nafarroako Gobernua
Baso ziurtaginerako auditoriak / Nafarroako Gobernua
Nafarroan ezpala ekoizteko baso baliabideen inbentarioa.
Lehen eraldaketako industriei eta basogintzako enpresei laguntzak ematea / Nafarroako Gobernua + Interes taldeak
Lehen eraldaketako industriei eta basogintzako enpresei laguntzak ematea / Nafarroako Gobernua + Interes taldeak

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko urriaren 6an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-23/PES-00111. Galdera, Tarazonako eta inguruko herrietako uraren kutsadurak eragindako osasun publikoko krisiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tarazonako eta inguruko herrietako uraren kutsadurak eragindako osasun publikoko krisiari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 10eko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00111), alegia, "ikusita Tarazonako eta inguruko herrietako uraren kutsadurak eragindako osasun publikoko krisia, bi aste geroago Tarazonako herritarrek konponbiderik gabe jarraitzen dutenez eta debekatuta dagoenez sareko ura kontsumitzea, eta bertako 400 bizilaguni baino gehiagori ondoeza eragin dienez jada Queiles ibaiaren tartean aurkitutako 'Cryptosporidium' izeneko parasitoaren ookisteak agertzeak, honako hau jakin nahi da". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

1. Jakin nahi dugu zer komunikazio izan diren Aragoiko eta Soriako gobernuekin egoera hori ikusita, eta zer neurri hartu dituen Nafarroako Gobernuak, kaltetutako herri horietatik hurbil dauden Nafarroako herrietan izan dezaketen eraginaren aurrean.

Elkarrizketak egiten ari dira:

- Etenik gabe, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko (NOPLOI) kudeatzailetzatik, Aragoiko Gobernuak Osasun Publikoko Zuzendaritzarekin (DGSPA) eta Osasun Ministerioko Osasun Publikoko Zuzendaritzarekin.

- NOPLOIko Ingurumen Osasunaren Ataletik, erkidego horretako Ingurumen Osasunarekin, bai eta Gaztela eta Leongo Juntako Ingurumen Osasuneko Zerbitzuko burutzarekin ere.

- Gaixotasun Transmisiagarrien eta Txertaketen Ataletik, Aragoiko homologoekin.

- NOPLOIko kudeatzailetzatik eta geroago Eli-gagaien Segurtasunaren Ataletik, Aragoiko Osasun Zerbitzu Probintzialesko zuzendaritzarekin.

- Osasun Ministerioko Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusiak bilera batera deitu zituen Aragoiko eta Nafarroako Osasun Publikoko zuzendariak eta Gaztela eta Leongo profesional delegatua.

Aragoiko Gobernuak agerraldia detektatu eta gero, NOPLOIk aztertu zuen zenbaterainoko arriskua zegoen Queiles ibaitik edateko ura hartzen duten Nafarroako herrietan (Ablitas, Barillas, Buñuel, Corella, Monteagudo, Murchante, Ribaforada eta Tulebras). Horien hornidura Moncayoko Ur Mankomunitateak kudeatzen du. Mankomunitateak erregulazio baltsa bat dauka, La Dehesako urtegia. Zuzenean Queiles ibaitik betetzen da, eta edateko uraren araztegiaren tratatzen da ura. Urtegi hori 2023ko ekainaren 24an bete zen azken aldiz, eta 2023ko ekainaren 26an amaitu zen karga hori, ibaian kutsadura detektatu baino egun batzuk lehenago. Horregatik, irailaren 22an ondorioztatu zen une hartan ez zegoela arriskurik biztanleentzat, udalerrri horietan kontsumitzen ari zen ura Tarazonako agerraldia gertatu baino lehenago hartu zelako Queiles ibaitik. Bazitekeen, ordea, arrisku egoera sortzea, urtegiko erreserba txikia zelako eta irailaren amaieran edo urriaren hasieran urtegia bete behar zelako, beste hornidura-iturririk ez.

Hartutako neurriak:

- Zaintza epidemiologikoa, ohikoa baino are zorrotzagoa, jakiteko Oinarrizko Osasun Laguntzan diagnostikatutako gastroenteritis akutuen (GEA) kopurua eta horietatik zenbat diagnostikatu diren Cryptosporidium agente infekziosoarekin Nafarroan eta udalerrri horietan.

- 2023-9-26an laginak hartu ziren hainbat tartetan, ura hartzen den tokitik herrietako horniduraren txorrotaraino, eta ez zen ookisterik aurkitu.

- 2023-9-29an udalerrri horietako OOLko profesionali eta Reina Sofía Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuari eskatu zitzaizkien GEA zuten pazienteentzat ahalik eta gorozki-azterketa gehien eskatzeko, zentzuzko neurrian, egoera monitorizatu eta kasuen balizko gehikuntza goiz detektatzearren.

- 2023-10-02an, Ministerioko Osasun Publiko-ko Zuzendaritzarekin egindako bileran, SEPRO-NAK Gaztela-Leonen bildutako laginetan *Cryptosporidium*en oostekien kopuruari buruzko emaitzak erreferentziatzeko mailatik gorakoak zirela jakitean, zuzendaritza horri eskatu zitzaion, kon-tuan izanda egoera horrek hiru erkidegori eragiten ziela, jarduketak koordinatzeko eta autonomia erkidegoetako agintaritza eskudunei behar ziren jarduketak eskatzeko.

- 2023-10-3an, 2023-10-6an eta 2023-10-10ean NOPLOik Moncayoko Ur Mankomunitateari eta Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiari deitu zien, egoera aztertu eta jarraipena egiteko eta egokitzat jotzen ziren neurriak hartzen joateko, Queiles ibaiko hornidura-uraren kalitatea bermatuko duten emaitzen zain.

2. Eta laginetarik eta analisirik egin ote den bilketa-puntuetan edo Queiles ibaiaren tartetan, populazio horietatik igarotzen denean, eta zer emaitza izan dituzten.

Urari buruzko arau indardunek –urtarrilaren 10eko 3/2023 Errege Dekretua, kontsumoko uraren kalitateari, kontrolari eta hornidurari buruzko irizpide tekniko eta sanitarioak ezartzen dituen, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko abenduaren 16ko 2020/2184 (EB) Zuzen-taraua, giza kontsumorako uraren kalitateari buruzkoa, zeinaren transposizioa baita errege dekretu hori– helburu dute pertsonen osasuna babestea kontsumoko uraren edozein motatako kutsaduraren ondorio kaltegarrietatik, uraren osa-sungarritasuna eta garbitasuna bermatuta. Ez dute errutinazko analisirik ezartzen *Cryptospori-dium* parametro honetarako (bai ordea kutsadura mikrobiologikoaren parametroetarako), salbu eta baldintza jakin batzuk betetzen direnean: *Clostridium perfringens* agertzea eta uhertasuna 4 NTU baino gehiagokoa izatea. Hala denean, parametro hori neurtu egin behar da edateko uraren araztegi-ko irteeran edo biltegi nagusian.

Ez da horrelakorik gertatu Moncayoko Ur Man-komunitateko herrietan, kontsumoko uren 2023ko

osasun zaintzari buruz Ingurumen Osasunaren Atalak dituen datuen arabera. Horregatik NOPLOik ez du neurri berezirik gomendatu, esku-ra zeuden datuak ikusita uste izan dugulako ez zela beharrezkoa.

Egoera Tarazonako agerraldiaren ondoren

Nafarroan badira Tarazonako uraren iturri bereko eta tratamendu bereko ura jasotzen duten herriak: Ablitas, Barillas, Buñuel, Corella, Montea-gudo, Murchante, Ribaforada eta Tulebras, enpre-sa eta partikular batzuek gain. Hala ere, kutsa-tzaile honen ezaugarri bereziak direla-eta, urak nahikoa desinfektatzaile edukitzeak eta edangarritzat kalifikatuta egoteak ez dute bermatzen *Cryptosporidium*ik ez egotea, kontsumoko uretan ohikoak diren kloro mailak jasaten dituelako.

Horregatik, Tarazonako agerraldia zela-eta, laginak bildu ziren ura hartzen den lekuan eta zen-bait herritan, parametro hori laborategi espeziali-zatu batean aztertzeke, 2023ko irailaren 26an. Emaitzak egokiak dira, bai eta Moncayoko Manko-munitateak egindako autokontrolak ere. Hala ere, monitorizatzen jarraitzen dugu, egoera etengabe ebaluatzeke eta neurri egokiak hartzeke, arriskua kudeatze aldera.

Geroago, laginak bildu dira:

- Aragoiko Gobernuak laginak bildu ditu Mon-cayoko Ur Mankomunitateak ura hartzen duen zonan, urriaren 2an (<0,02 oostekite litroko, erreferentziako mailaren azpitik) eta urriaren 9an (emaitzen zain).

- NOPLOik laginak bildu ditu ura hartzen den zonatik kontsumitzen den zonara bitarteko 6 pun-tutan, urriaren 10ean (emaitzen zain).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-lamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko urriaren 17an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00002. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) bi patronatukide izendatzea

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko azaroaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“1. Nafarroako Parlamentuak proposaturiko pertsona hauek izendatzea Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) patronatukide:

- Rubén Unanua Ruiz jauna.
- José Antonio Villanueva Oyarzabal jauna.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 2023ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00004. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gardentasunaren Kontseilurako izendatu beharreko lau kideak izendatzea

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko azaroaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“1. Honako pertsona hauek hautatzea Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gardentasunaren Kontseilurako izendatu beharreko kide:

- Cristina López Mañero andrea, titularra, eta Marta Álvarez Alonso andrea, ordezkoa.
- Kevin Lucero Domingues jauna, titularra, eta María Teresa Esporrín Las Heras andrea, ordezkoa.

– Irati Jiménez Aragón andrea, titularra, eta Aranzazu Izurdiaga Osinaga andrea, ordezkoa.

– Blanca Regúlez Álvarez andrea, titularra, eta María Roncesvalles Solana Arana andrea, ordezkoa.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 2023ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau erabakitzen da:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2023ko azaroaren 30eko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentariaren elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

